

Arrasate

P R E S S

997ko
nduak 12
B. zenb.

Euskadiko Karate Txapelketa Arrasaten

IKUSPEGIA: J. L. AZKARATE • KULTURA: ARTEA ETA HIRUGARREN MUNDUA
30 GALDERATAN: KOLDO AZKOITIA • IRITZIA: JUAN JOSE GOENAGA

JAPAN

Olaya's

MANDARINA DUCK



LUIS ESTEVE



GILABERT

Spek Denda



Iturriotz, 19 Herriko Plaza
ARRASATE



A R B A

**SUKALDE ETA
DEKORAZIO
PROIEKTUAK**

Juanita Arana

Mondragones kalea, 9 (Azoka ondoan)
ARRASATE • Tel./Faxa: 77 07 50

Kalitatea beti!



SUKALDEAK eta ELEKTRATRESNAK

Miele

ALTZARITAN ESKLUSIBITATEA BAILARAN

Txerriaren errifak eta Olariaga

Ez nau zirraratzen, *oraindik, zelai berde bat begien aurrean ikusteak. Baina ia. Egunen batean benetako euskalduna izatera iritsiko naiz, belar moztu berria usaindu eta paradisua bertan dagoela sinesten duten horietakoa*". Felipe Juaristi idazlearen berbak dira. Baina, trankil, ez naiz orain filosofatzen hasiko eta. Santamasak aurrean ditugula eta, feriaren inguruko hainbat gogoeta plazaratzera nator. Bat nator Juaristiren hitzekin. Sekula ez dut ulertu euskaldun gehienek zergatik estimatzen dituzten hainbeste estanpa bukolikoak. Era berean, ez dut ulertzen zergatik maite duten hainbeste ziklismoa eta mendizale-tasuna, hau da, jesta heroikoak. Baina hori beste kontu bat da.

Badatoz Santamasak, eta eurekin batera, urtero legez, baserriaren errebindikazio folklorikoa. Eta honi lotuta, euskaltasunarena ere bai. Udalak, kutsu politiko



J. L. Azkarate

nabarmena duelakoan, "Santamas Komisiñua" bazterteza erabaki eta bere gain hartu ditu jaien antolaketa lanak, kartelaren eta esku-programaren diseinua. Eta erabaki horrek giro arraroa ekarri du. 11 kultur-elkartek idatzi bat kaleratu dute Udalaren jarrera salatze eta "Santamas Komisiñua" defendatzeko. Bat nator kultur-elkarrekin diotenarekin, baina komunikatu horretan agertzen den gauza batek harritu egin nau biziki. Idazkian "Komisiñua"ren lana defendatzen da eta, momentu konkretu batean, jaiak politizatuta ez daudela-edo azaltzeko, zera diote: "*Herriaren jaiak, eta herriatik bultzatu den jai hori herrikoak izateaz gain, euskalduna izatea du gu helburu, euskalduntasunaren ikuspegitik, euskal kultura zabaldu eta handik edateko helburua dugulako*" (?).

Nola demontre antolatzeko da jai bat euskalduntasunaren ikuspegitik? Horra hor arazo etiko galanta; txapela eta gerrikoa beharrezkoak al dira

ikuspegi hori gauzatzeko? Zer da euskalduntasuna? Neurtu daitekeen gauza bat? Usain bat...? Ez nago baserriar-jantziaren kontra, noski. Baina, mesedez, ez al da momentua gauza bakoitza bere lekuan jartzeko?

Honaino, artikularen lehen parte. Orain, bigarrena. Ez dut ulertzen Udalaren hankasartzea aurtengo Santamasak direla eta. Jaiak "politizatuta" omen daudela eta, zapla!, "Komisiñua" aurretik kendu. Arrasaten ia dena dago politizatuegia, baina sekula ez dut bizi izan sentsazio hori Santamasetan. Kartelarekin, berdin. Azkenengo hamar urteetan, gutxienez, Antton Olariagaren kartelez gozatzeko aukera izan dugu. "Zakilixut" en aitaren kartelak ederrak izan dira urtero urtero. Politizatuta dagoela kartela? Zergatik, "Ez gaude denok" jartzen duelako? (Nire etxeko felpudoan "Ongi Etorri" jartzen du, eta?). Maritxu Kajoiren kartelak ere beti ekarten du lelo hori, "Ez gaude denok". Beste kartel honen autorea ere zirkulaziotik kentzeko asmoa al dago? Autore apolitiko bati enkargatuko ote diote lana?

Hauexa da "Santamasetan" ikusi gura izango nukeen estanpa: "Txispas" Portaloiaren txerriaren errifak saltzen, eta Olariagaren kartel ederrak paretetan.

"Zer da euskalduntasuna? Neurtu daitekeen gauza bat? Usain bat...?"

388. zenbaki honetan

1997ko abenduaren 12an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen	11/13	Kulturaren txokoa	27
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza	30/31
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19	Denborapasak	32
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan.....	20/23	Ikusi eta entzun	33
Astearen errepasoa... ..	10	30 galderetan	26	Fotozaharra	34

Ikuspegia

J. L. Azkarate **3**

Euren ikuspegitik

Juan Jose Goenaga..... **8**

Aurrez aurre

Jon Barrena..... **24/25**

Kulturaren txokoa

Hirugarren mundua eta artea **27**

Asteko gaia

Ipar Euskal Herria: gertu bezain urruti..... **17/19**



Euskadiko Karate Txapelketa Arrasaten

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK
ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Maria Agirre. **Kazetariak:** Ixaro Zubillaga, Marian Porcal, Patxi Montero. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tel.: 79 02 26) **Diseinua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Maria del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenagoa, Mikel Inzar, Udaleko Gazteña Saile, ASA taldea, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Maitide Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jaseon Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). **ARRASATE PRESS. Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko kontertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oriñe).

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Ignacio Perez.

12

ostirala

■ ZINEA

Aliens. Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ GAZTETXEAN KONTZERTUA

Gutariko bat eta *Xabier Montoiaren* kontzertua Arrasateko Gaztetxean, gaueko 9etan.

■ ABBADIAREN IZARRAK IKUSKIZUNA

Amaia antzokian gaueko 10.30etan Hegohaxek antolatuta. Ikuskizun berritzaile honek Antoine de Abbadieren bizitza kontatzen du. Sarrera: 1.500 pta.

13

larunbata

■ ZINEA

Aliens. Alai zineman arratsaldeko 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ORKATZ TALDEA

Orkatz taldearen ikasturtearen hasiera. 9 urtetik 15 urtera arteko neska mutilak, eguerdiko 12etan, Orkatz taldeak Altamiran duen lokalera joan daitezke.

■ KONPONBIDEA DEMOKRAZIA OSOA LEMAPEAN MANIFESTAZIOA BILBON

ELA sindikatuak Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatuta. Manifestazioa arratsaldeko 5etan hasiko da eta autobusa arratsaldeko 3etan irtengo da Garibaitik. Herri Batasunak ere autobusa antolatuta, arratsaldeko 3.30etan Arboletatik aterako da.

■ TXOTXONGILOA AMAIAN

Gorakada taldearen *Pino-txo 2.000* Txotxongilo emanaldia Amaia antzokian, arratsaldeko 5etan. Sarrera: 300 pta.

■ GAZTETXEAN KONTZERTUA

Beltzez eta *Hautzarrak* Iparraldeko taldeen kontzertua, gaueko 9etan. Iparraldeko Eperra ikastolaren alde.

■ KONTZERTUA ESKORIATZAN

Gari eta *XXL* taldeen kontzertua Eskoriatzako frontoian, gaueko 10.30etan. Sarrera: 800 pta, aurrez 600 pta.

14

igandea

■ ZINEA

Alien. Alai zineman arratsaldeko 5etan, 7.30etan eta 10etan.

15

astelehena

■ ZINEA

Aliens. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ KONTZENTRAZIOA ETA MANIFESTAZIOA SEBERON

ELA, LAB, CCOOko Ezker Sindikalak eta ESK-QUIS-ek deituta. Goizeko 11etan kontzentrazioa Seberon eta 12etan manifestazio isila. Mahai Nazionaleko kideen espertxeratzaren kontra.

■ HERRI BATASUNAK ANTOLATUTAKO MANIFESTAZIOA

Konponbide demokratiakoaren alde lemapean manifestazioa arratsaldeko 7etan.

■ TXISTU KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko Areto Nagusian, arratsaldeko 7.30etan.

IBARRA
Garajea S.L.



Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua



Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

ZUBIZARRETA
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 79 15 65



KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis
Tel.: 77 09 92 / Faxes: 79 78 14
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea
Tel.: 78 21 82
OÑATI

16

asteartea

■ **ZINEA**

Aliens. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ **HITZALDIA MONTERRONEN**

Gaia: *Balore hezkuntza: gurasoen ardura ere bada.* Hizlaria: Txus Congil (droga-menpekotasunaren prebentzio teknikaria). Monterronen, arratsaldeko 7etan.

■ **GURASO**

JARDUNALDIAK ALMENEN

Gaia: *Gure haur eta gazteen antsietateak depresioak...* Hizlaria: Jose Mari Sarasua. Almen ikastolan, arratsaldeko 6etan.

■ **HITZALDIA**

Gaia: *Jostailu sexistak.* Hizlariak: Maite Gartzia eta Mari Karmen Albes. Udaltzeko pleno aretoan, arratsaldeko 7.00etan.

17

asteazkena

■ **TXOTXONGILOA**

Enkarni Genua-ren txotxongioloak, Santamaina auzoko liburutegian, arratsaldeko 6etan.

■ **SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLAREN BATZAR NAGUSIA**

Batzar nagusia Gazte-luondoko batzar aretoan. Lehen deialdia arratsaldeko 6etan, eta bigarrena 6.30etan.

■ **GURASO JARDUNALDIAK**

Gaia: *gure haur eta gazteen antsietateak depresioak...* Hizlaria: Jose Mari Sarasua. Almen ikastolan arratsaldeko 6etan.

18

osteguna

■ **TXOTXONGILOA**

Galtzargorriak txotxongiolo saioa Monterongo haur liburutegian arratsaldeko 6etan.

■ **AUTOESTIMARI BURUZKO HITZALDIA**

Gaia: *Emakumea eta bere autoestima bizitzan zehar.* Hizlaria: Amaia Vazquez. Arratsaldeko 3.30etan. Sarre-ra: doan. Antolatzailea EKIN.

■ **ELIKADURARI BURUZKO HITZALDIA**

Gaia: *Gabonetako jatorduak.* Hizlaria: Julian Bereziartua, medikua. Arratsaldeko 4etan Familia eta Gizarte Heziketarako zentroan.

■ **ARGAZKI RALY-AREN SARI BANAKETA**

ASA argazki taldeak antolatutako argazki ralyaren sari banaketa Monterronen, arratsaldeko 7etan.

■ **EGUBERRIKO KONTZERTUA**

Amaia antzokian, arratsaldeko 6.30etan. Arrasate Musikalek antolatuta.

■ **HOMOSEXUALITATEA ETA LESBIANISMOARI BURUZKO HITZALDIA**

Gaia: *balore sexualen hezkuntza: nola transmititzen dugu aukera sexualen berdintasunaren mezua?* Hizlaria: Amaia Vazquez. Aretxabale-tako Loramendi elkartearen lokalean, arratsaldeko 6.30etan. TRIL emakume taldeak antolatuta.

■ **BARAZKI ETA ARDI GAZTA LEHIAKETA**

Etxean bertan egin edo ustiatutako baserriko produktuak bakarrik aurkeztu ahal izango dira lehiaketara. Gazta lehiaketako partehartzaileek norberaren artaldeko LATXA ardi-esne gordinaz egindako gaztak aurkeztu beharko dituzte. Osoa izango da gazta eta gutxienez 800 gr izan beharko du.

Barazki eta fruta lehiaketan parte hartzen duten arrasatearrei dirulaguntza berezia emango zaie. Baserrian eskuz egindako ogi onenari ere sari berezia emango zaio. Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea, abenduaren 16an, eguerdiko ordubatean bukatuko da. Izena Udalan eman behar da (77 09 00).

■ **AMODIOZKO GUTUNEN VI. LEHIAKETA**

Lanen luzera ezingo da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Lanean ez da egilearen daturik jarriko, lema bakarrik. Helbidea: Amodiozko gutunen VI. Berrigara lehiaketa. Jardun elkarte, Masterreka, 13 behera. 20.570 Bergara. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 14a.

■ **LOGOTIPO LEHIAKETA**

Gaia: *Gazteak batuz elkarlana bultzatu.* Logotipoak gazte talde desberdinen arteko elkarlana adierazi behar du. Logotipoa koloretan eta zuribeltzean entregatu behar da urtarrilaren 13a baino lehen. Arrasateko Gazte bulegoan, Hitza eta Ekintza elkarte, AEDn eta Musakolako eta San Andresko gazte txokoetan entregatu daiteke.

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 79 20 57

HIES
EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

Pavimentos AGR
ARROZTEGIA

- Era guztietako zoluak (moketa, sintasola, P.V.C, kortxoak, parketa. Tarima, etab.)
- Lixaketa eta barnizaketa
- Ateak, Neurrian zearritako armairuak, Egurrezko leihoak, Eskilarak, Errodapiak, Frisua, etab.

ELKARTE KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:

Kete Txiki, 3 - behe (Musakola) • ARRASATE • Tel.: 77 11 20 • Faxa: 77 11 20

SANTAMAS KOMISIÑUEK ARRASATEARREI

Santamas jaiak Arrasaten geroago eta partehartzai-leagoak, inoiz baino sustraituagoak eta arrasatearren gustokoen direnean Santamas komisiñue egoera bitxian aurkitzen da. Santamas komisiñue eta bere lana herriko Udalak baztertu egin ditu eta Olariaga artista ospetsuaren ohizko marrazkia ez da aurtengogan Santamas jaien kartel iragarlea izango.

Une honetan bizi izandako pasadizo ugari, aurkitu ditugun jarrera, aurrera begira ditugun asmo, eta beste batzuei buruz luze eta zabal aritzea gustatuko litzaiguke bainan, lerro gutxi hauetan miraririk ezin dugunez egin, arrasatear guttiori pare bat gauza argi eta garbi adierazi nahi dizuegu:

- Arrasateko Udalak baztertu edo zentsuratu egin du Santamas komisiñue. Aurtengoa ere, 20 urte baino gehiagotan egindako eta beste hainbestetan bideratutako proposamen berbera egin diogu Udalari, baina, bere jarrera aldatuz, gure proposamenari uko egin dio Udalak. Horretarako, Udal agintari berriek eman diguten argudioa bakarra izan da: Santamasak "politizatuak" omen daude eta ondorio horretara heltzeko arrazoi bakarra hauxe izan da: jaien kartel iragarlearen bazterren batean "ez gaude denok" aipatzen dela eta programan Arrasateko preso- ei aipamen txikia egiten zaie-la.

Komisiñue zokoratzeko eta zentsuratzeko arrazoia izan al daiteke arazo sozial gordina den eta Santamas jaietan gurekin egoterik izango ez duten Arrasateko preso- ei buruzko aipamentuoa egitea?

Baina, Santamas komisiñuek bere ibilbide luzean ez al du etengabe frogatu, jarra- ira ireki eta gardena erakutsiz, arrasatear guztien zerbitzura dagoela, sekula santan ez dela ez politikeria, ez alderdikeria ez eta setakerietan ere aritu eta bere zeregin bakarra Arrasate alaitsuago, euskaldunago eta kulturari gero eta sustraituago baten aldeko dinamika bul- tzatzea dela?

- Eskertu egin nahi dugu Santamasetan parte hartzen duten kultur talde eta elkarte guztiek publikoki eta modu zintzoan eman diguten babe- sa. Euren eskaera ez da inon- dik inora kontuan izan Udala- ren aldetik, beronek akordio batera heltzeko ezelako boron- daterik ez du agertu. Kultur tal- deek azaldutako babesak poz- tu egiten gaitu eta, aldi bere- an, gure zeregina eta lana gida- tzen dituzten ardatzetan asma- tzen ari garela adierazten digu.

Bukatzeo, lasai egon, agurtu egin nahi zaituztegu bainan ez dizuegu adiorik edo agur esan behar. Santamas komisiñue inoiz baino indar- tsuago eta hobeto dago, ahal- mena, gogoia eta ideiak ditu- gu eta. Udaletzeko agintari berriek jarrera aldatu eta Arra- saterentzat ondorio kaxkarrak baino ez dakarren egoera tra- kets hau, berandu baino lehen,

gaindituko delakoan gaude. Gure betiko estiloan lan egi- teko desiatzen gaude, modu positiboan, beste talde eta per- tsona askorekin batera eskuz esku, lerro hauetan aipatu eta nahi dugun Arrasateren alde gure lana eginez eta gure ale- txoa aportatuz.

Santamas Komisiñue

HURBILKETA ETA BAKE PROZESUA

Duela gutxi Barne Ministe- ritza eta euskal partidu politikoen artean -HB izan ezik-euskal preso- en hurbilke- tari buruz izandako bileraren aurrean euskaldun gehienok itxaropentsu azaldu ginen. Bilera horrek ez zuen inolako konponbiderik ekarri eta eus- kal preso- en egoerak bere horre- tan jarraitzen du. Barne Minis- teritzak ez du aurrerapausorik eman nahi eta euskaldunok gero eta etsiago sentitzen gara.

Gobernu zentrala eta eus- kal alderdi politikoak ez dira gai euskal presoak jasaten ari diren zuzengabekeria kon- pontzeko. Alde batetik, Eus- kal Parlamentuak emandako agindua ez dute kontuan har- tzen, eta bestetik, Europear Parlamentuak onartutako pre- so- en eskubideak ez direla inon- dik inora ere errespetatzen esan beharra dago.

Gobernu zentralak joku elektoralari egiten du gai hone- kin eta erraz nahasten ditu zerkusirik ez duten ekintzak: bortizkeria eta euskal preso- en

sakabanaketa, hain zuzen ere.

Egoera honi irtenbidea eman behar zaio. Partidu poli- tikoak ez badira gai, ekimena edo inizatiba herriak berak hartu beharko du, beti modu bakezaleak erakutsiz, bortiz- keriarekin ez delako ezer lor- tuko.

Euskal Herriarentzat bakea nahi izanez gero, beharrezkoa dugu euskal preso- en egoera konpontzea, normalkuntza eta bizikidetzat lortu ahal izateko.

*Manuel Uribe
San Miguel*

Zuzenketa

Joan den astean argitara- tu genuen "ATBko Ter- tulixan programan..." gutunean honako esaldia ageri zen: ... normalean senidea bera izaten da pre- so- en egoeraren ardura- dunak nortzuk diren argi eta garbi esaten duena. Zuzenketa egitean esa- nahia aldatu genion era honetan ulertu behar den esaldiari: normalean pre- soa bera izaten da preso- en egoeraren arduradu- nak nortzuk diren argi eta garbi esaten duena.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 12

- Gaueko 10ak arte: Español, Iturriotz.
- Gauez: Mozos, Bergara.

Larunbata 13

- Gaueko 10ak arte: Corcuera, Musakola.
- Gauez: Camacho, Bergara.

Igandea 14

- Gaueko 10ak arte: Irizar, Erguin.
- Gauez: Camacho, Bergara.

Astelehena 15

- Gaueko 10ak arte: Amezuza, Santamaina.
- Gauez: Puy, Bergara.

Astearte 16

- Gauez: Ruiz, Maala.

Asteazkena 17

- Gauez: Morales, San Andres.

Osteguna 18

- Gauez: Azkoaga, Ferrerías.

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

Sili Sili
Martxa eta estilo
handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

Euskal Herriko Iparraldea ezagutzen duzu?



Gorka Iraola
(33 urte)
Langilea

Bai, Donibane Loitzunen ikasi nuen eta ezagutzen dut. Ni donostiarra naiz eta inguru horretakook ezagutzen dugu Iparraldea. Lehen erosketak egiten joateko ohitura zegoen, orain eurak etortzen dira.



Frantzisko Ansuategi
(45 urte)
Langilea

Leku batzuetan egon izan naiz baina ez dut ondo ezagutzen. Iparraldeari buruzko informazio gutxitxo dago.



Miguel Sales
(30 urte)
Langilea

Ez naiz sekula egon.



Eugenio uribarren
(39 urte)
Langilea

Zeozer bai, Biarritz, Donibane, Baionan.. egonda nago. Dena dela, uste dut hemen ez dugula Iparraldeari buruzko informazio asko.



Eulalia Agirre
(67 urte)
Etxekoandrea

Iparraldean egon naiz, baina ez dut ezagutzen. Informazio gutxi daukagula uste dut.



Petra Garcia
(59 urte)
Etxekoandrea

Ez dut ezagutzen, Baionan egonda nago baina besterik ez.



Ioana Aguado
(18 urte)
Ikaslea

Ez naiz sekula egon, eta ez dut ezagutzen.



Josefa Gallastegi
(80 urte)
Etxekoandrea

Bidaia batean egon nintzen, baina ezin dut esan ezagutzen dudarik.

Lore
Lurrindegia
Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

ORTO + LAGUN
O R T O P E D I A
Nekaturik edo hankako minez zabiltz?
• Neurriera egindako plantilla bereziak.
• Lanerako zuekoak • Oinetako erosoak.
Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

USTEAK USTE

Jende iladak

Pasa berri den aste bukaera luzean irudipen aldrebasa izan dut: jendetzak toki guztietara jarraitu nauela.

Joan nintzen Durangora eta jendea besterik ez nuen ikusi. Justu-justu pentsatuta neukana erosteko lekutxo bat egin nuen jende artean. Gauean telebista ixotu eta aste bukaero bezala Guggenheim kanpoan eratzen diren jende iladei buruzko notizia ETBko albistegian. Konforme, museo horren eraikuntza dagoeneko justifikatuta dago baina mese-dez, ez gaitzazue zapatu eta domekero albiste berberarekin bonbardeatu! Hurrengo egunean zinemara, eta Gasteizen egiten duen hotzarekin kristoren iladan itxoin behar. Hotz egin zuen Granadan ere, eta eskiatzeko asmotan zebiltzanek osatutako auto ilada ikaragarria ikusgai iluntzeko albistegian.

Ikusi dugunarekin nahikoa badugu ere, kontua da datorren aste bukaera hau ere jendetsua aurreikusuten dela. Eta gero japoniarrei esango diegu!

Maria Agirre



Gab-onak ala gab-txarrak?

Juan Jose Goenaga

Badirudi urtetik urtera ohi-turak aldatuaz doazela eguberri festen inguruan.

Duela 30 urte ez ziren orain moduan ospatzen egun hauek, ez gizarte mailan, ezta pertsona mailan ere. Kantuaren letra oso antzekoa izanik, sortzen den sinfonia oso ezberdina zen.

Gaur egun zenbaitek nahia-gor luke, festa hasi aurretik bukatuta balego. Santamasetatik Errege egunera salto egin zuzen-zuzen. Hauen iritzi-z, festa kristau hauek "post-kristautasunaren" ezaugarri dira. Azala mamirik gabe, itxurakeria hutsa. Festaren erro-etan batere sakondu barik, festa egin eta kit-to!

Hobe litzateke esatea kontsumokeriaren festa dela, supermerkatuei laguntzeko egun bereziak.

Badira festa hauek direla-eta depresio latza jasaten

duten pertsonak ere.

Hauek urte osoa eman ohi dute burua apurtzen: "Zer egingo dut, zer esango... familia osoa biltzen denean? Ondo konpontzen ez naizen familiarteko horren ondoan eseritzean? Neure familia ez den horrekin joateko momentuan?"

Gabon festa tristeak dexente normalak dira gure artean, nahiz eta turroi asko jan edo txanpan frantsesa edan. Hauen ondoan bada beste jende talde bat festa hauei esangura kristaua kendu eta naturaren eraberritzea ospatzera mendira elurretara joaten dena.

Hobe litzateke esatea kontsumokeriaren festa dela, supermerkatuei laguntzeko egunak

Elizak izan zuen intuzioa, bai. Laugarren gizardian zehar kalendarioan ezagutzen ez zen JESUSEN jaioteguna abenduaren 25ean ospatzen hasi ziren. DIES SOLI INVICTI-EGUZKIAREN egunean ezarri zuten JESUSEN jaioteguna. Eguzki berriaren sinbolarerabili zuten JESUS nor zen adierazteko. Gaurko kristau batek nola ospa dezake gabon eguberri eguna axaleko sentimenduek egun eder horren esanahia zapuztu barik?

Nik neuk esperantzaren eguna ospatzen dut, esperantza izan daitekeelako jesusen jaiotzaren esanahi mami-ttua.

Jesus da Israelgo herriak giza historian eraldatu zuen esperantzaren agerpena. Bera da giza historiaren ate irekia. Jainko ezkutuaren agerpena eta gizon-emakumeekiko haren hurbiltasuna adierazi ziguna.

Esperientzia sakon hau herri eta kultura desberdinek berea egin dute. Bereganatu bakarrik ez, kultura bakoitzak bere erara bizi eta ospatzen du. Gabon eguberriak ez dira berdin ospatzen hotz eta elurra egiten duen lurraldeetan, Kariben edota Afrikako herrietan.

Ez da berdin ospatzen, baina BERA ospatzen dute. Esanahi sakona berdintsua dute: gabon-eguberri dira, presentzia baten aztarnak. Ilunaren erdian EGUZKIAREN presentzia. Jainkoaren maitasunaren presentzia giza historiaren erdian.

Juan Jose Goenaga. San Andreseko parrokoa.

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 79 91 84
ARETXABAETA

JUBAR ATEAK. S.L.
BURDINEZKO ATEAK ETA PERTSIANAK.
AUTOMATISMOAK.
KONPONKETAK.
Kataide poligonoa, 18 • ARRASATE
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

TOKION ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN SALMENTA
Erdiko Kale, 7
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE



PARDO estetika zentroa

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- SOLARIUMA DUTXAREKIN

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

ABENDUAN AURPEGI
GARBIKETAREKIN MANIKURA DOAN!

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Zeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎ 79 52 17 ARRASATE



PARDO
ESTETIKA
ZENTROAKzure
konfidantzagatik
OPARI BAT
emango dizu!

GASTON Y DANIELA
Tapizeria • Mocketak Alfonbrak

Zatoz estreinatu
dugun erakusketa
berria ezagutzera!



Alfonbra eta ohialez gain, **haur eta gaztetxo**en altzari
sail berria topatuko duzu bertan!

Kruz gallastegi, 3 • BERGARA • Tel. /faxes: 76 07 37



*Karmele Bitxitegian
oparirik disdiratsueanak.
Zorionak.*

astea bi hitzetan

■ **Senideen ekimen ibiltaria Arrasatera heldu zen**

Ostiral iluntzean heldu zen Hego Euskal Herria autobusez zeharkatzen ari den Senideen ekimen ibiltaria. Herriko plazan ekitaldi berezia egiten zen bitartean, Senideetako kide batzuk sindikatuetako ordezkariekin bildu ziren pleno aretoan. Gauza bera egin zuten beste batzuek herrian sortu berri den plataformako kideekin. Ondoren, manifestazio isila egin zen.

■ **Pedro Guridiren osasunaz arduratuta**

Asteartean prentsaurrekoa eman zuten Eskualde Ospitaleko mediku eta erizain batzuek. Pedro Guridik hernia diskala duela eta, preso arrasateari ebakuntza berehala egiteko eskatu zuten prentsaurrean. Eugenio Iturriotz

medikuak esan zuenez, presoak eskubidea du ebakuntza non egin aukeratzeko; gainera, etxetik gertu egitea komenigarria dela adierazi zuen.

Asteartean aurreratu zenez, hurrengo plenoan mozioa aurkeztuko dute zinegotzietan "Pedotxoren" osasunaz arduratu daitezen eskatzeko.

■ **Sexu berdintasunerako Aukera programa**

Asteartean aurkeztu zen udaletxean etxeko lanak gizon eta emakumeen artean banatzea helburu duen Aukera programa. Helburu hori lortzeko asmoz, ikastaro desberdinak antolatu dira. Gizonezkoek sukaldaritza, plantxa pasatu eta josten irakatsiko zaie. Emakumeek, berriz, elektrizitatea, iturgintza eta automobilaren

mekanika.

Programaren aurkezpena egiten Txaro Arteaga Emakundeko lehendakaria, Arrasateko alkatea eta Emakumearen batzordeko burua ibili ziren.

Europar Batzordeak 18 milioiko dirulaguntza eman du Aukera programa aurrera ateratzeko, eta Arrasate ezezik, inguruko beste herri batzuek ere esku hartuko dute. Ikastaroetan parte hartzeko izenematea abenduaren 15etik aurrera.

■ **Kalamudia elkarteak aurkezpena egin Arrasaten**

Cannabisaren ikerketarako Euskal Herrian sortu den elkarteak Arrasaten aurkeztu zen joan den asteazkenean. Behin aurkezpena eginda, herrian Kalamudiaren helburuen alde lan egingo duen taldea eratzeke asmoa dute.



IÑIGO AIZPIOLEA IRUNDARRA IRABAZLE

Aurten euskaldun batek irabazi du lehenengo aldiz Nazioarteko V. akordeoi lehiaketa.

Astelehenean egindako galan, Iñigo Aizpioleak jaso zuen Arrasate Hiria sari entzutetsua. Antolatzaileek, bestalde, lehiaketaren oso balorazio ona egin zuten.

“ Errekuperatu den ondarearek buruzko kasurik nabarmenena Gatzagarena izan da. Ia hutsik zegoen herriak bultzada handia izan du azken urteetan eta etxe asko berriñu dira.

Herri guztietan ez da ondarea berdin gorde eta Oñati, beharbada, etxeak ondoen gorde dituen herria da.

(...) Aurrera begira, Bergara eta Arrasateko Zerrajerako elementu batzuk gordetzeko edota Deba erreka gainean doazen zubiak zaintzeko zerbait egin beharko litzateke.

JERARDO ELORTZA

Kapirixoko kidea. Berrigara aldizkaria. 301. alea.

“ ETB sortu zenean bazegoen ideario edo filosofia bat euskaraz emitituko zuen komunikabide propio baten alde. Hori berreskuratu egin behar da. Hau da momentua presio talde bat sortzeko iritzia publikoaren inguruan euskaraz emitituko diren kanalen aldeko apustua eta bultzada egiteko, zeren legislazioan mugak jartzen direnean hor ez da ukitzez inolako aukerarik izango. Bestela, euskarak ez du lekurik edukiko. (...)

EDORTA ARANA

Euskaldunon Egunkariaren Urtekaria.



**MARKO-JARTZEAK
ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

HIES

EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralean
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 79 14 16
ARRASATE

Sei arrasatearrek plataforma bat sortu dute

Helburua: presoen Euskal Herriratzea

Euskal Herritik urrun dauden preso sozial eta politikoen hurbilketa lortzeko plataforma sortu dute sei arrasatearrek. Plataformako kideek esan bezala, helburu bakarra dute eta ahalik eta epe motzeneran asmo hori beteta ikusi nahi dute.

Atzo goizean prentsaurrekoa eman zuten zerk bildu dituen azaldu eta euren buruak aurkezteko. Udaletxean emanako prentsaurrean argi eta garbi utzi zuten euren izaera apolitikoa eta arrazoi sozial, etiko, eta humanarioek bultzatuta bildu direla azpimarratu zuten.

SORRERA

Maiatzean Senideak elkartearen deia jaso zuen Arrasateko hainbat lagunek. Presoen Euskal Herriratzea lortzeko laguntza eske joan zitzairen Senideak, eta batzueri burubelari sartzea eskatu zieten. Horrela bildu ziren sei arrasatearrak, eta irailean plataforma eratzeko lanean hasi ziren. Horretaz gain, plataformaren helburuak jasotzen dituen dokumentu bat egin dute.

Joan den asteazkenean, hilak3, berriz, pleno aretora gonbidatutako 100 arrasatearri plataformaren helburuak zeintzuk diren azaldu eta ideia



Goian: Joxe Ramon Elortza, Luis Sagasta eta Bittor Aranzabal. Behean: Manuel Quevedo, Jose Antonio Altuna eta Agustin Mondragon.

zer iruditzen zitzairen galdetu zieten. Pleno aretora hurbildutakoek asmoa begi onez eta pozik jaso zutela ikusita, plataformakoek aurrera egitea erabaki dute. Euren esanetan, pleno aretora joandakoek pozik eta itxaropentsu jaso zuten ekimenaren berri.

ZER EGIN

Eperik jarri barik baina plataformakoek ez dute asmo hone-

kin urteak pasatzea nahi. Horregatik, epe motzera behintzat erabakita dute zer egin. Hasteko, presoek Euskal Herriratzearen alde dauden sinadurak bilduko dituzte herrian. Santamasetan firmak batzera aterako dira eta horretarako laguntza eskatuko diete hainbat arrasatearrei. Ondoren, Eusko Jaurlaritzara, Arrasateko Udalera, gobernu zentralera eta Arartekoaren

bulegora bidaliko dituzte. Aurrerago zer egingo duten erabaki barik badute ere, atzo aipatu zenez positiboa izango da beste herri batzuetan ere horrelako plataformak sortu eta zerbait bateratua egitea.

Plataformako kideen iritziz, gatazka konpontzeko lagungarria izan daiteke presoak hurbiltzea. Euren ustez horrek distentsioa ekarriko luke.




ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 79 22 55 79 14 25

**PUB
HAIZEA**





Ezker Batua ez dago konforme diru partida batzuekin, eta emendakinak aurkeztu dituzte.

Ostegunean egingo da 98ko aurrekontuak onartzeko plenoa

Ezker Batuak hainbat emendakin aurkeztu du

Datorren ostegunerako deituta dagoen pleno berezian aztertuko dira 98ko aurrekontuak, eta seguruen onartu egingo dira EAJ, EA eta PSE-EEaren aldeko botoekin.

Aurrekontuetan proposatzen diren diru partida batzuekin ados ez daudela eta, Ezker Batuak zinegotziek emendakinak aurkeztu dituzte. Atzo emandako prentsaurrekoan, berriz, emendakin horiek zeintzuk diren jakinarazi zuten.

EBk gobernu taldearen aurrekontu proiektua kritikatu zuen. Alderdi horren iritziz "uste baino txarragoa da, kudeatu den moduagatik nahiz proiektuaren edukia-gatik. Hirukoak ez du eztabaida bultzatzeko borondaterik izan eta argumenturik gabeko proposamena aurkeztera mugatu da". EB kargu publikoak diruz konpen-

tsatzeko kontusaila %32 gehitzearen kontra azaldu zen. Gobernu taldeak 35 milioi inguru zuzendu ditu gobernu organoen ordainketarako, eta Ezker Batukoek uste dute oinarrian hirukoa osaten duten zinegotzientzat gehitu dela. Proposamen horrek "egoera ekonomiko eta sozial txarrean dauden herritarrei ez die inolako elkartasunik adierazten" esan zuten atzokoan EBkoek.

Partida garrantzitsuena-ekin ere, hau da, frontoia egiteko aurrikusi diren 120 milioiekin, desadostasuna azaldu zuten. Gauza bera lurzoru industrialaren erosteko hirukoak zuzendu dituen 50 milioiekin, eta parrokia konpontzeko eman nahidiren 25 milioiekin. Ezker Batuaren iritziz, dirua botatzen du gobernu taldeak.

Emendakinekin jarraituz, ikastetxeandako dirula-

guntzak parekatzearen alde agertu ziren. EBaren ustez, dirua banatzeko irizpideak ikastetxe pribatuen mesedetan eta publikoen kaltetan bideratu dira. Ur eta saneamenduan, bestalde, Aramaio erreka-erregaren garbiketan eta zuhaitzen landaketan diru gehiago gastatzearen alde azaldu ziren. Aurrekontuen proiektuan dirurik ez bada aurrikusten ere, EBk 5 milioi eskatuko ditu garraio publikorako eta 45 hirigintzako oztupoak kentzeko.

Bestalde, kontusail batzuekin adostasuna azaldu zuten. Esanguratsuenak: Agerre plazako urbanizazioa, Alde Zaharra, Zaldispe, Osinaga, oinezkoen zumardia, autobus geltokia eta hirugarren adinekoentzako inbertsioak. EBak emendakinak aurkeztu dituen moduan, HBk ere gauza bera egingo du.

Ijitoen txabolak botako ditu Udalak

Aste honetan gobernu taldeak egin duen bileran, Eskualde Ospitale ondoan ijitoek egin dituzten txabolak botatzea erabaki da. Hirigintzako ordenantzek esaten dutenez, ezin da inolako eraikinik jaso Udalaren baimenik gabe. Horregatik hartu da txabolak botatzeko erabakia. Dena den, txabolak ez dira berehala botako. Lehenengo ongizate batzordean aztertuko da ijitoekin zer egin. Datorren astelehenean bilduko da ongizate batzordea ijitoen etorkizunari buruz erabakia hartzeko.

Joan den martxoan akanpatu zuten ijitoek Eskualdeko Ospitaleko aparkaleku ondoan. Orduetik txabolak erai-ki eta bertan geratu dira bizi izaten. Udaleko ongizate batzordea harremanetan egon da ijitoekin etorri zirenetik. Ijitoen egoera hobetzeko baliabideak eskaini eta elkarbizit zarako neurriak hartzea izan da orokorrean ongizate batzordearen lana. Lan horri esker, beste gauza batzuen artean, ijitoen umeak eskolara joaten dira.



Santa Teresako txabolak

Santa Teresa eta Agerreko kaleko bizilagunak kexu azaldu dira, euren etxeen atzekaldean dauden txabolak direla eta. Euren esanetan, zikin-keria, isurketak eta usain txarra eragiten dituzte. Arazoari irtenbidea bilatzeko, Udaltxeko Ingurugiro Sailak asmoa du bilera egiteko txabolen jabeekin.



HAU DA HAU INDARRA!

Bedoñako jaietako programak ekintza berria iragartzen zuen zapatu arratsalderako: aitzur jaurtiketa txapelketa. Berritasunak eraginda akaso, lehiakideek egundoko indarrak jaurti zuten aitzurra eta hara noraino bidali zuten, argi-indarraren kabletaraino. Txispa batzuk atera ondoren zintzilik geratu zen, baina zorionez ez zuen kablea moztu. Hori bai, aitzur lehiaketa uste baino lehenago bukatu zen.




EPELDE

URTE ASKOTARAKO!


Arantzazun ezkondu ziren Itziar Ruiz de Austri eta Jose Davila arrasatearrak joan den hilean. Arantzazutik senar-emazte irten eta

zuzenean Etxe Aundira joan ziren ospatzera. Ezkonbazkariko betekada kanporatzen, berriz, Kanariasetara joan ziren. Zorionak!



ROTA GOXOKIAK PORRUI

Mutikotxoak Porruri begira begira geratu zaio. Mutikoak poltsa handi xamarra eraman zuen San Nikolas eguneko bolo-bolora baina, hainbeste ume artean ezin goxoki bat bera ere harrapatu. Auskalo azkenean poltsa betekozuen ala ez. Bota zenion goxokirik, Porru?



KLASERAAA...

Klaseko txirrinak jo izan balu Asunzionisten eskolako ikasleak ez ziren hain azkar bilduko, baina kasu honetan bazkari baterako deialdia zenez, ez zen inor falta. Joan den zapatuan 40 eta 80 urte bitarteko 73 ikasle eta bi lekaime elkartu egin ziren aspaldiko kontuak gogoratzeko. Huelva, Zaragoza, Iruña, Bilbo eta Donostiatik etorri ziren. Bazkarian ederto pasatu zuten, desiatzen daude errepikatzeko.

MECA GRUA ZERBITZUA

Grua tel.: 989 34 98 29
Renault Asisten.: 900 365 000
24 orduko zerbitzua 365 egunetan

MECA



IBAITXO JAIO DA

Argazkiko dragoitxo Ibai Arteko maskota da. Maskotari izena jartzeko lehiaketa bat antolatu zen Arrasateko ikasle guztien artean. Bi gaztetxok

Ibaitxo izena proposatu zutenez, eta izen horixe gustatu zaienez, Asier Rosado eta Julia Sierra dira irabazleak. Sari bakarra biendako!



LEKEITIOA IRABAZLE

Jon Andueza eta Aitor Agorriaren *Laugarren galeriatik* laburmetraiak lehen saria jaso zuen Lekeitioko Zinema eta Bideo jaialdian, argumentuzko film profesionalen atalean. *Laugarren galeriatik* ATBko plato zaharrean grabatu zen eta arrasatear asko ibili zen filmean lanean. Argazkian denak ez badaude ere, zorionak laburmetraian parte hartu duzuen guztioi...



Zubiaga

*1960tik, bitxi eta erlojugintzan
katalogorik zabalena eskaintzen dizugu.*

ZUBIAGA

Kale Barria, 18
20.560 OÑATI
Tel.: 71 60 74

bitxítegia

ZUBIAGA

Maalako Errabala, 5
20.500 ARRASATE
Tel.: 79 19 25 FAXA: 79 14 89



Ipar Euskal Herria: gertu bezain urruti

Auzolandegien esperientziak iparraldeari buruz ezer gutxi dakigula erakutsi zigun. Iparraldea hobeto ezagutzeko, auzolandegiei nolabaiteko jarraipena egin behar zitzaizela konturatu ginen eta hortik sortu zen Hegohaxe taldea". Horrela kontatzen du Danel Goikoleak Hegohaxe taldea sortzeko arrazoia. Iparraldea guretzat ezezaguna bada ere, iparraldekoek ederto ezagutzen dute hemen gertatzen den guztia. "Haiek hona begira bizi dira. Hemengo egunkariak irakurtzen dituzte, Euskal Telebista ikusten dute...Ondo informa-

AEDko Gazte Mobidak orain urte batzuk auzolandegiak antolatu zituen iparraldean, gazteak euskararen ingurura erakartzeko asmoz. Seaskari laguntzeko lehen ekintzak 93an egin ziren eta ordutik hona iparraldeko euskaldunekin harremanak estutuaz joan dira. Lan horren bultzatzaile nagusia Gazte Mobidan sortutako Hegohaxe taldea da. Mugaren bestaldeko gure herriaren zati hori gerturatzea da Hegohaxeren helburua. Helburu horretarako bidean, aurrerapausua eman nahi izan du taldeak; horra hor, Iparhaxe astea: erakusketak, kontzertuak eta ikuskizun berezia Iparraldea gehitxoago ezagutu dezagun.

tuta daude. Gertatzen dena da gu ez gaudela han gertatzen denaz informatuta". Danel eta Peio Hegohaxeko partaideek gogoratzen dutenez, azken urteotan asko dira Iparraldeko lagu-

nekin batera antolatutako ekintzak. "Gura duguna da hemengo jendea hara eramatea eta hangoa hona ekartzea. Arratsateko gehienbat udan joaten gara, eta Iparraldekoak

Maritxu egunean eta neguan etortzen dira gehienbat. Iparraldeko hainbat elkarterekin batera, bizikleta martxa, Goitibehera liga eta txapelketa, Herri Urrats eta beste gauza asko antolatzen dugu".

Peio Gomez-ek azaldu duenez, Iparraldekoekin duten harremana oso aberasgarria da. "Hego Euskal Herrian oso momentu egonkorrean gaude. Militantziaren asuntua alde batera utzi da. Iparraldean, berri, oso gutxi dira baina euskararen alde edozer egiteko prest daude. Beti dago mugimendua, ikastolak direla, elkarrekin direla, eta gu ere piztu egiten gara".

EPERRA IKASTOLA ERAIKITZEN

Hegohaxeren nahia taldera jende berria erakartzea da. Orain arte asko izan dira esku hartu dutenak baina gutxi geratu direnak. Dena den, auzolandegietara lagun asko apuntatzen denean arazoak sortzen dira. "Peoi lana eskaini dezakegu bakarrik, gure artean iturginik edo ofizialik ez dagoelako. Lehenengo bi urteetan lan asko zegoen baina hirugarrenean kopurua mugatzeko eskatu ziguten leku arazoa zegoelako. Orduan euskararen alde lan egiten duten elkarten eraketa lanetan edota egoitzak eraikitzen ibili ginen".

Hegohaxeren azkenengo lana Sohütako Eperra ikastolaren eraikuntzan laguntzea izan da. "Hango ikastolek ez dute inongo dirulaguntzarik jaso 94. urtera arte, ezta soldatak ordaintzeko ere. Urte horretan, kontratu bat sinatu eta gobernu frantziarraren esku geratu zen soldaten ordainketa. Diru hori ikastolak eraikitzeko bideratu zen". Zuberorako euskararen egoera nahiko gogorra da Danelen hitzetan. Etorkizuna ikastolen esku dagoela esan daiteke. "Zuberorak helduen %52a elebiduna da baina haurretan %9ra jeisten da portzentaia. %9 hori ikastoletako ikasleak dira. Eperrakoak lau urte ibili dira negoziazioetan ikastolarako dirua lortzeko baina azkenean euren kabuz egin behar izan dute. Ikastolak pribatuak izatea sekulako arazoa da".

ABBADIAREN IZARRAK

Aurtengo irailean zabaldu zituen Eperra ikastolak bere ateak baina oraindik material ugari erosi beharra daukate. Eperrarentzat dirua biltzeko asmoz, Hegohaxek Iparhaixe izeneko kanpaina antolatu du. Kanpainaren ardatza, gaur bertan Amaia antzokian gaue-



EHUN LAGUN BAINO GEHIAGO PARTE HARTZEN DUTE URTERO AUZOLANDEGIETAN. HAMABOST EGUNEO TXANDAK EGITEN DIRA.

ko 22:30etan eskainiko den Abbadiaren Izarrak ikuskizun berritzaile eta apurtzailea izango da. Antoine de Abbadie berpizkundeko intelektual euskalzalearen bizitza kontatzen du ikuskizunak, bideoa, olerkia, musika, kan-

tua, antzerkia eta dantza garai-kidea lotuz. Guztira 60 lagun inguruk hartuko du parte bertan. "Amaia Antzokia goraino bete behar dugu. Hemen-dik arrasatear guztiak gonbidatzen ditugu". Horretaz gain, Iparaldeari buruzko hainbat

informazio jarri da ikusgai Monterronen, Bionan eta Gurelekun. Bihar, zapatua, kontzertua egongo da Gaztetxean Iparaldeko Beltzez eta Haurtzarrak taldeen esku-tik.

Beraz, Iparaldeko zati txikitxo bat Arrasaten izango dugu. Eta zuk ezagutzen duzu Iparaldea? Bazenekien Lekeitio eta Ondarroa Ipar Euskal Herriko hamaika herri baino Iparalderago daudela? Eta hori dela eta, batzuek Iparaldeari Ekialdea deitzea proposatu dutela? Hasteko, ez legoke batere gaizki zuberorrek prestatu duten Abbadiaren Izarrak ikuskizunera joatea. Eta bide batez, gure herria bateratzeko hain beharrezkoak diren ikastolen alde, bakoitzak bere ekarpen txikia egitea. ■

Iparhaxe astea

■ **Abenduak 12, ostirala:** Abbadiaren Izarrak ikuskizuna Amaia antzokian gaueko 10:30etan. Sarrera 1.500 pta.

■ **Abenduak 13, zapatua:** Beltzez eta Haurtzarrak Iparaldeko rock taldeen kontzertua Gaztetxean gaueko 9:30etan. Sarrera 300 pta.

■ **Erakusketak:** Monterronen, Bionan eta Gurelekun Iparaldeari buruzko erakusketa informatiboak.

Marian Porcel



Hegohaxearen ufada

Duela hiruzpalau-bost urte hor nonbait, hurbildu zitzaizkigun Arrasate aldeko lagunak hastapeanean AEDk luzatutako deiari erantzunez. Guri ikastolen eraikuntzan laguntza ekartzera etorriak eta bidenabar Iparraldea eta iparraldetarrak ezagutzera. Geroztik hemen ditugu urtero.

Baina ez digute eraikuntza sailean soilik laguntza ekarri. Heldu diren bakoitzean Hego eta Iparra bat garelako erakusten digute ere, euskara dela gu guztion hizkuntza, Arrasate eta inguruetako bideak, bizi poza...eta elkarrekin etorkizunerako proiektuak amesten ditugu.

Honelako lokarriek, honelako zubi eta ekimenek, aspalditik euskaldunon artean dirauten arraildurak estaliko dituzte batasunaren bidean.

Gillermo Etxeberria
Xalbador ikastolako irakaslea



Eta berria eraiki genuen...

Iragan urteko abendoaren 14an, larunbatarekin, goizeko zortzietan hamar bat ikastolako guraso eta euskalzale bildu ziren lanerako. Ikastola Berriko Sohütako "xantierrean". Lehen lan eguna hotza, euritsua eta ilunpekoa suertatu zen; orduen Belatarren baserri ohiaren hausteari ekin zioten denek, Robert André arkitektoak barne, pala, palangaxkak, aitzur eta aizkorrak eskuan ontsa xorroxturik.

Kasik une berean Habia elkarteak sustengukanpaina zabal bati hasiera eman zion, xedea bururaino eraman ahal izaitzeko diruaren erdiesteko, baina ere neguaren bihotzak dudaz beteak zirelako gero hurbilari buruz, Euskal Herri osoko jendeak gure laguntzera jinarazteko asteburu batean edo bestean; hedatu genuen agirian genion "ase eta lo trukean" eta badirudi hitz xoil horiek, guban bezala, auzolangintzarako aitzinako oihartzuna kilikatu zutela askoren gogoetan. Halatan martxotik aurrera, gure herriaren sei hegaletarik etorri zitzaizkigun taldeak, adin eta probintzia guzietakoak. Sohütako larunbatak "kultur gune" bilakatu ziren uztailako lehen astebururaino azken saldoa Tuterako Argia ikastolatik jin baitzen Habiaren lahuazkatzera.

Arrasatekoei dagokienez, hamar bat gaztek Sohütako bidea martxoaren 26, 27, 28 eta 29an hartu zuten. AED ingurukoak ziren Jasone, Saioa, Peio, Ugutz eta besteak. Hiru egunez aritu ziren Gasteiztik eta Kasedatik bertaratu berrogei auzolangilerekin, bazter konpontzen, ate zilatzen, arroila urratzen eta hesiak zutik ezartzen. Giro ederra sortu zen, gauaz Pitxu batzokian besta egiten zela, lekuko musikari eta kantariekin. Hortik sortu zen Sohütako xantierra Babel antzekoa zelako kontzeptoa baina eraikina ez zen erori Babel famatu hura bezala.

Arrasaten abendoaren 12an, ostiral honetan beraz antolatzen den ikusgarria, urtean zehar herri frangotan eraman den kanpainaren baitan kokatzen da. Abadiaren izarrak ikastola berriaren alde eskeiniko da Arrasateko antzokian. Elkar langintza luze eta sakon baten segida eta amaiera oparoa da.

Ikastola berriak irailaren 2an zabaldu zituen bere bortak, 66 ume eta 5 erakasle. Orduz geroztik Eperra Ikastolak sekulan ezagutu ez dituen baldintza egokietan lan egiten du. Mobilizazio azkar eta adiskidetsuari esker. Zuei esker.

Itxaro Borda

Eperra ikastolako zuzendaria

Hirugarren aldiz, Arrasateko Kirolak txapelketako eszenatokid

Saioa Karate Eskolak antolatuta, junior eta kadete mailako Euskadiko karate txapelketa jokatu da domekan, hilak 14, Arrasaten. Goizeko 10etan, Iturrieko kiroldegia karateken topaleku bihurtu da.

Aurtengoa Saioak antolatzen duen hirugarren txapelketa da. Iñaki Munoz arduradunak esan duen bezala, aurreko txapelketetan era guztietako esperientziak bizi izan dituzte. "Txapelketa 1994an antolatu genuen lehen aldiz. Egia esateko, nobatoak ginen eta kritika dexte jaso genuen. Hurrengo urtean berriro animatu eta primeran irten zitzaigun. Karate Federazioa ere harrituta geratu zen antolakuntzarekin." Aurten, beraz, berriro animatu dira, esperientzia daukate eta dena primeran irtengo delakoan daude. Euskadiko Txapelketa Arrasatera ekartzea karatea herrian eta inguruan indartzeko baliogarria izango dela uste du Iñakik. "Euskadiko txapelketa antolatzeko Arrasate, Basauri, Zornotza eta Gasteiz aurkeztu eta Arrasate aukeratu zuten. Hori Saioa eskolarendako ohore handia da".

TXAPELKETARAKO DENA GERTU

Euskadiko txapelketa antolatzeko lan eta ordu asko eskatzen du. Dena puntu-puntu egon behar da eta txapelketaren egunerako gauza txikiak ere lotuta egon behar dute. "Lehenengo Karate Federa-



Arrasateko karatekak duten onena ematen saiatuko dira domekan Iturripen.

zioarekin jarri ginen harremanetan. Gero pistak egokitu eta gainera tatamiak neurria jakin batzuk dituztenez horiek erendo zehaztu. Ondorengo pausua materiala bilatzea izan da: mahaiak, aulkiak, zinta banatzaileak, hesiak... Horretaz gain, trofeoak lortu. 45 trofeo behar ditugu, 150.000 pezeta balio dute eta une honetan erdia baino ez daukagu. Dena dela, uste dugu domekarako dena prest izango dugula".

Trofeoak eta laguntza bilatzeko Saioakoe ate asko jo dute, baina erantzuna ez da

uste bezain ona izan. "Kirol minoritarioa da gurea eta jendea ez dago laguntzeko gertu. Gurekin benetan primeran portatu dena Arrasate Kirolak izan da, eskatutako laguntza guztia eman digute eta".

Iñakiren ustez, hemendik urte gutxira Karateak Arrasaten eta inguruan indar handia izango du. Harrobia ondo zaintzen ari dira eta fruituak berehala etorriko direlakoan daude. "Karatearen helburua ez da aurkaria jotzea. Karatean kiroltasuna da nagusi eta horretarako arau eta epaile

batzuk egoten dira kirolari bakoitzaren lana baloratzen".

KARATEKA UGARI DOMEKAN

Domekan 145 karateka elkartuko dira Iturripen. 16 urtetik 20 urtera arteko neska mutilak izango dira eta bi modalitatetan jardungo dute: kumitea eta katak. Kumitea kontaktu bako borrokaldia da, bi karateka aurrez aurre daude eta euren abildadea baloratzen da. Katak keinu teknikoak dira. Flexibilitatea eta ele-

Euskadiko Karate domeka honetan

gantzia hartzen dira kontuan batez ere.

Arrasatearrek kumitean bakarrik hartuko dute parte. Guztira herriko bederatziz karateka egongo dira, eta iñaki Munoz entrenatzailea itxaropentsu azaldu da mondragoe-tarrek egin dezaketenez. "Erik Martin eta Iker Zabartek dominaren bat lortzeko aukera daukate. Besteei ahal duten onena egiteko eskatuko nieke. Kumitean tentsio handia egoten da eta zer egin behar den pentsatzea ez da samurra izaten". Euskadiko txapelketan 9 karateka sailkatu dira Estatukora joateko. Estatuko txapelketan Europako maila onena dagoela esan daiteke. "Estatuko txapelketan Europako eta munduko karateka onenak ibiltzen dira, beraz, lehia ikaragarria izaten da. Horregatik, neska-mutilak bertara joateko desiatzen egoten dira".

TXAPELKETAKO HELBURUAK

Domekan Arrasaten jokatuko den Euskadiko txapelketaren aurrean, Saioa Karate eskolakoek helburu garbia daukate. "Karatea sendotu nahi dugu, kirol indartsu eta garrantzitsua bihurtu dadin. Oinarri sendoa finkatu nahi dugu etorkizuneko kirola izan dadin". Saioakoek txiki utzi nahi dute Iturripe domekan. "Herritarrei aukera bat emateko eskatuko genieke. Gurea ere beste kirolak bezain dibertigarri eta espektakularra izan daitekeela erakutsi nahi dugu".



Aitor Etxeberria

17 urte, 5 urte karatean
Gerriko marroia
Kadetetan parte hartuko duen lehen aldia.



Jorge Sanchez

17 urte, 7 urte karatean
Gerriko marroia
Kadetetan parte hartuko duen lehen urtea.



Sandra Alvarez

17 urte, 3 urte karatean
Gerriko marroia
Kumitean parte hartuko duen lehen aldia.




Alaitz Aranburuzabala

17 urte, 3 urte karatean
Gerriko marroia
Euskadiko txapelketan parte hartuko duen lehen urtea.



Garbine Tera

17 urte, 3 urte karatean
Gerriko marroia
Euskadiko txapelketan parte hartuko duen lehen aldia.



Erik Martin

19 urte, 13 urte karatean
Gerriko beltza
Iaz Euskadiko eta Gipuzkoako txapelduna. Aurten, Gipuzkoako txapelduna.



Iker Zabarte

18 urte, 12 urte karatean
Gerriko marroia
Juniorretan parte hartuko duen lehen aldia.



Angel Alonso

19 urte, 7 urte karatean
Gerriko marroia
Juniorretan parte hartuko duen lehen urtea.



Tamara Martinez

18 urte, 3 urte karatean
Gerriko marroia
Juniorretan parte hartuko duen lehen aldia.

Gimnasta

MAIALEN BALENZIAGA

“Gimnasia erritmikoa gogorra izan arren, ondo pasatzen dut”

— **Zenbat denbora Gimnasia erritmikoan?**

— Urte bete. Aurten goiko taldera igo naiz eta igar-tzen da aldaketa, ariketak askoz ere gogorragoak dira eta.

— **Zer da gehien gustatzen zaizuna?**

— Gustatu, zinta gustatzen zait, baina oraindik gaz-tea naiz eta ez dut zintarekin ariketarik egin. Gaur arte soka eta uztaiaz ibili naiz. Bietatik gustokoen soka dut..

— **Zer moduz entrenamenduetan?**

— Ondo, astean hiru bider etortzen gara, eta ostira-letan luzaroago egoten garenez, egun gogorrena izaten da. Baina gustora etortzen bazara, denbora segituan iga-rotzen da.

— **Dietarik jarraitzen duzu?**


— Ez, normal jaten dut. Amak jartzen didana, eta gozi-kiak ere bai. Gainera, gimnasia erritmikoan ibiliagatik ez dago zertan gutxiago jan behar.

— **Gimnasiaz gain, zein kirol gustatzen zaizu?**

— Atletismoa, baina orain ez dut astirik, gimnasia-rekin nahikoa daukat.

— **Zuretako zer da gimna-sia erritmikoa?**

— Kirola egin, lagun artean egon eta ondo pasatze-ko modu bat.



FUTBOLA Atxabalpen zita



Preferente mailako Mondrak Hondarribia taldearen bisita izango du domekan, hilak 14, arratsaldeko 3.30etan, Atxabalpen. Mondrak azken partidua galdu ondoren, etxean garaipena behar du berriro sailkapeneko aurreko postuetan kokatzeko. Hondarribia talde gaztea da eta harrobiko jokalariai ditu. Sailkapenean 15. tokian dagoen arren, ezusteak ematen ditu; esate baterako, aurreko partiduan Oiarztuni-laugarren sailkatuari-1 eta 0 irabazi zion. Mondra, beraz, ezin da konfiatu eta jokalariek partiduak irauten duen bitartean dena ematen saiatu beharko dute. Mondrako emakumezko taldeak, berriaz, Nafarroako Lagunak talde indartsua izango du aurrean domekan, goizeko 11etan. Nafarrek azkar eta erasoan jokatzen dute. Juanina Garaik zuzentzen duen taldeak defentsa sendoa ezarri beharko du aurkariek egin ditzaketen kontraeraso azkarrak geldiarazteko. Mondrako Bigarren kadeteek, berriaz, Nike torneoan parte hartu zuten zapatuan. Arrasate Kiro-lak izenarekin aurkeztu ziren Lezaman eta emaitzari dago-kionez, ez zuten zorterik izan. Bi neurketa jokatu eta biak galdu zituzten.


RUGBYA Infantil mailako topaketak



Arrasate Rugby taldeak antolatuta, Infantil mailako topaketak izango dira zapatuan Garagartzan. Guztira 4 taldek hartuko dute parte: Irun, Ordizia, Hernani eta Arrasate. Topaketak goizeko 10etatik ordu-


bata arte luzatuko dira. Eus-kal Ligako taldeak Unibertsitari- os izango du aurrez aurre, arratsaldeko 4etan, Garagartzako zelaian. Arrasateko taldearendako irabazteko moduko partidua izan daiteke.

ESKUBALOIA Liderra aurkari



Arrasate eskubaloi taldeak Usurbilen kontra neurtuko ditu indarrak zapatuan, arratsaldeko 6etan. Liderra eta azken sailkatua izango dira lehian. Arrasatek ez du nalanahiko partidua izango, baina Herro entrenatzaileak dioen bezala, bere taldea edonori irabazteko gauza da; beraz, beldur barik irtengo dute kantxara. Usurbilgo jokalariek urte asko daramatzate elkarrekin jokatzen eta bloke sendoa daukate. Horretaz gain, oso talde azkarra da. Arrasatek Velascoren baja izango du norgehiagorako, baina gainontzekoak jokatzeke gertu izango dira.

SASKIBALOIA Gero eta larriago



Saskibaloikoek gero eta larriago egon arren, ez dute itxaropena galdu eta bigarren bueltan hobetuaz joango direla uste dute. Datorren zapatuan Urdaneta eta Arrasate izango dira nor baino nor Donostian arratsaldeko 6etan. Etxeko taldearendako hemendik aurrerako partiduak finalak izango dira eta beti ere garaipena lortzea izango dute helburu nagusi. Lehen bueltan Urdanetak 10 puntuko aldea ateratu zion Arrasateri.

Hurrengo partiduak

Abenduak 13, Larunbata Zaldibar

- 8.50 Cartonajes Igamo - Nuevo taberna
- 10.00 Jey Holigans - Jako al Rey
- 11.00 Ke ostias - Ganbelas
- 12.00 Naranja Mekanika - Los Heredia
- 13.00 Elisabeth - Kamasutra
- 14.00 Orlando Piratas - Zotz
- 15.00 Lautherbrunnenn - Ainarexia
- 16.00 Betrayer - Fraguol gol
- 17.00 Aurrera Bolie - Totem
- 18.00 Argi Ibili - Leya
- 19.00 Txeyenex - Koka Juniors

Iturripe A

- 11.00 Sokoakoak - Tamagotxi
- 12.00 Ac Surcos - KKjauri
- 13.00 Estrella Taberna - Makai
- 14.00 Babajana - Potrosorri
- 15.00 Pepelus - Rotor de Bolbogrado
- 16.00 Aldapa taberna - Aldibi

Iturripe B

- 13.00 Irati STS - DKB
- 14.00 Etxe Mobil - AT Celaya
- 15.00 Nacex.S - Garaje Oscar
- 16.00 Lorategi Potroak - Iluna Taberna


Abenduak 14. Igandea Zaldibar

- 9.50 jotakabau - pipwhis
- 11.00 Onaniereng - Branka Taberna
- 12.00 Borrock Roll - Insert Coin
- 13.00 Sobredosis de Claro - Bukanak



EPEH TALDEA ETA BILERA

Epeh eta Jey Holigans taldeen arteko iskanbila sortu zenean, antolatzaileekin izan behar zuten lehen bilerara *Epeh*-koak ez zirela azaldu esan genuen. Jakin dugunez, antolatzaileek ez zieten abisatu; horregatik agertu ziren *Jey Holigans*-ekoak bakarrik.



Bonba taldekoen bileraren ondorioak

Asteartean, Bonba taldekoek egin zuten bileran, hainbat gauza zehaztu zuten. Bileran esan bezala, datorren asterako Bonba egutegiak gertu izango dira eta bazkide bakoitzak egokitzen zaion kopurua saltzeko arduratu hartu beharko du. Bestalde, oraindik kamisetarik ez duen bazkideren bat badago, azkar jasotzen joateko deialdia egin dute arduradunek. Aztertutako beste puntu bat taldie aurkezteko egingo den afaria. Urtarrilean izango da eta 3.500 pezeta balioko du. Afarira joateko izena Irati Tabernan eman behar da. Azkenik, Bonba taldeko eta era berean Realeko baz-

kide direnendako dei berezia egin zen. Reala datorren urteko kuota pasatzen hasi da dagoeneko. Zenbat ordaindu behar den jakiteko Kutxara zuzendu beharra dago eta beste zehaztasun batzuk jakiteko, Realak duen egoitzara deitu (46 28 33). Diru sarrera hile honetan egin behar da, bestela, bazkideek arazoak izan litzakete urtarrileko partiduak ikusteko. Izan ere, txartel barik Realak ez dio inori Anoetan sartzen utziko. Bazkideekin jarraituz, Bonba taldeko bazkide bai, baina Realekoa egin gura duenak izena emateko epea zabalik duela adierazi zen.

Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak gero eta gertuago

Arrasate Kirolak taldeko atletek Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetara joateko gutxienezko denborak lortzeko probak izan zituzten domekan Anoetan. Junior, senior eta kadete mailakoek hartu zuten parte. Arrasateko taldean bost

lagunek lortu zuten gutxienezko denbora. Bestalde, 14 kilometro eta 300 metroko Zallako krosean, beteranoetan, Mari Jose Gil arrasatearra lehen postuan geratu zen eta gizonezkoetan Enrike Kabiteta izan zen onena.

ANOETAKO PROBAK

Kadeteak

300 metro	Ibai jurado	39'47
60 metro hesi	Maitane Arizmendiarieta	10'46
60 metro	Oskar Gabilan	7'84
60 metro	Mikel Apraiz	7'90

Jubenilak

200 metro	Unai Sarabia	24'08
-----------	--------------	-------

JON BARRENA (SENIDEAK ELKARTEKO KIDEA)

“Presoen arazoa gizarte

Arrasateko Senideak elkartearendako gorabehera handiko urtea izan da aurten-go. Jon Barrena elkarteko kidearen esanetan, urtea gogorra izan da bai presoendako eta baita senideendako ere; baina hala ere, gizartea inplikatzeko lortu dute. Alde batetik, hainbat sindikaturen laguntza jaso dute; bestetik presoak Euskal Herri-ratzearen alde lan egingo duen plataforma sortu da herrian.

- Zer ekarri dio urte honek Arrasateko Senideak elkar-teari?

- Kementsu hasi ginen baina Blancoren heriotzaren ondorioz, nahiko gogorra izan da urtea bai senideendako eta baita presoendako ere. Politikoekin genituen akordioak uztailean bertan behera gera-

tu ziren. Orain berriro ere jendea inplikatzeko lanean gabil-tza baina kanpaina mediatikoa oso gogorra izan da eta jendea beldur da.

- Senideak elkarteak balo-ratu du Blancoren heriotza?

- Ez, horrelako balorazio-

rik ez dugu egin. Gatazka bat dago eta ekintza hori horren barruan aztertu behar da. Senideak elkartean joera ezberdi-neko jendea dago, beraz, elkar-teak ezin du ekintza horien baloraziorik egin.

**- Urtearen hasieran Josu Arkauz entregatu zuten. Une honetan zein da Josuren ego-
era?**

- 36 egunez gose greban egon ondoren torturatu egin zuten. Bere egoera ikusita, Entzutegi Nazionaletik nega-
rrez irten nuen. Ez zeukan pertsona itxurarik ere, oso gogorra izan zen. Gaur egun isolamenduan dago, bakar-bakarrik. Baina beste batzuk ere egoera berean daude.

- Gainontzeko preso arra-satearren egoera zelakoa da?

- Kasu larriena Pedrotxo-rena da, bere osasun egoera kas-
karra da eta. Kondena beteta

“Kementsu hasi ginen baina Blanco-ren heriotzaren ondoren, nahiko gogorra izan da urtea bai senideendako eta baita presoendako ere”

osoarena da”

dauka eta osasunez txarto dabil, horregatik, epe motzera Pedrotxo aske uztea edo behintzat hona ekartzea lortu nahi dugu. Besteei dagokienez ere panorama zaila daukagu; hiru Kanariar Irletan eta besteak Euskal Herriatik kanpo. Gainera, bi presok, Jonek eta Pedrotxok, zigorraren 3/4a eduki arren, oraindik lehenengo graduari jarraitzen dute, eta hori ez da normala.

- Arrasatearra izateak ondorioen bat dakarkio presoari ala?

- Ez dugu hori sinistea gura, baina zerbait badago. Adibidez, ez da normala Garitaonaindia Mexikotik ekartzea. Berarekin beste lau errefuxiatu zeuden eta justu “Garita” ekarri zuten, militante kualifikatua ez dena. Susmo txarra hartzen diogu jokaera horri, baina presoek ezartzen zaien politika hain da arbitrarioa! Edozein egunetan bat ekartzen dute, hurrengo

egunean beste bat isolatu... ez dago logikarik.

- Presoen hurbilketaren aldeko plataforma sortu da Arrasaten. Zuendako garrantzitsua da, ezta?

- Beharrezkoa da beste sektore batzuk inplikatzeko. Presoena ez da Senideen arazoa bakarrik, gizarte osoarena da. Presoek eskubide batzuk zor zaizkie, alde guztietan jasota dauden eskubideak.

- Plataforma eratzeke zein pauso eman zenuten?

- Alderdi politikoak nahi-

ko lotuta zeudenez, pentsatu genuen zuzenean pertsonengana jotzea. Ezagunak diren pertsonekin harremanetan jarri ginen orain dela zortzi edo bederatz hilabete. Gero uztaileko geldiduna etorri zen, eta orain euren jarri dute martxan plataforma berriro ere. Helburua presoak Euskal Herriratzea da, eta plataformakoek erabakiko dute zer egin hori lortzeko. Senideak elkartek bakarrik informazioa ematen die, eta hortik aurrerakoa euren erabakitzen dute.

- Sindikatuen atxikimen-

dua ere lortu duzue.

- Lehengo ostiralean hainbat sindikatutako kideak Senideen ekimen ibiltariko parte hartzaileekin bildu ziren. Sindikatuen aldetik ELA, LAB, STEE-EILAS, CCOOko Ezker Sindikalak, Kooperatibako kontseilu sozialeko kide bat eta Lankideak-eko beste bat egon ziren. Sindikatuek euren bidea jorratuko dute.

- Eta alderdi politikoekin, zer?

- Arrasateko EArekin harremana dugu eta EAJrekin ez gara bildu orain dela urte batzuk Salto del Negrokoa gertatu zenetik. EBarekin ere hartueman ona dugu. Sozialistekin ez gara bildu.

- Zer falta da presoen Euskal Herriratzea lortzeko?

- Nire ustez euskal gizarteak presoak Euskal Herriratzearen alde dago. Konpromezu politikoa falta da. ■

“Helburua presoak Euskal Herriratzea izanik, plataformakoek erabakiko dute zer egin hori lortzeko”




LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

■ Koldo Azkoitia

ESKUALDEKO GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIAREN ARDURADUNA



Eibartarra jaiotzez, aretxabaletarra bihotzez, gatzagarra bizilekuz eta lana, aspalditxotik, Arrasaten baina Deba Garaiko Mankomunitaterako. Ikuspegia, zabala; sustraiak, Deba arroan zehar sakabanatuta. Ez da harritzekoa ba, ogibidez aldatzekotan, turismo-gidari aukeratu izana.

1.- Zein da zure horoskopoa?
Aries.

2.- Sinestuna zara? Bai.

3.- Animalia bihurtzekotan?
Katu.

4.- Zure akats bat/gauza on bat? Arazoari irtenbidea ikusita, betetzea kostatzen zait/Besteen lekuan jartzeko erraztasuna.

5.- Zerk lotsarazten zaitu? Hirugarren munduko miseriak.

6.- Amets bat? Zoriontsu izaten jarraitzea.

7.- Zer kenduko zenuke mundutik? Gorrotoa, gutizia, indarkeria, inbidia...

8.- Gertakizun historiko bat?
Frantziako iraultza.

9.- Nor miresten duzu? Gandhi.

10.- Zeri diozu beldurra? Maite ditudanak galtzeari.

11.- Zeozer garbatzen zaizu? Gauza asko.

12.- Negar egin duzun azken aldia?
Begiak erraz umeltzen zaizkit.

13.- Zer falta zaio Arrasateri? Espazio zabalak.

14.- Eta zuri? Denbora.

15.- Lanbidez aldatzekotan? Gidari turistikoa.

16.- Arrasateko gustoko toki bat?
Udalatx.

17.- Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Ezetz esan.

18.- Zein egunkari irakurtzen duzu?
Ez naiz egunkari zalea.

19.- Gustoko janari bat? Arraina.

20.- Liburu on bat? *El médico*.

21.- Filmerik onena/txarrena? *Los puentes sobre el río Madison*.

22.- Musika talderik onena/txarrena? Onenen artean *UB-40*, *Revólver* eta *Queen*.

23.- Telebistako programarik onena/txarrena? *Natura* erreportaiak/Lehiaketak.

24.- Egin dizuten oparirik politena?
Esperientziak konpartitzea.

25.- Denbora libre zertan pasatzen duzu? Paseatzen, irakurtzen eta leku berriak ezagutzen.

26.- Oporretarako toki bat? Asturias.

27.- Etxeko lanik gorrotagarriena?
Arroparekin zerikusia dutenak.

28.- Gomendio bat? Bizitza kasualitateek eta erabakiek osatzen dute; behin erabakiak hartuta, aurrera egin.

29.- Zerbaitegatik emango zenuke bizia? Maite ditudanengatik.

30.- 200 milioi irabaziz gero? Inbertsioak ondo planifikatu.



IPUIN TAILERRA

Titulu eskuragarriak

- Ikasi eta ondo pasatzeko oparirik onena
 - Haurrak, beraien lagunekin batera dira protagonista
 - Euskaraz, gazteleraz, ingelesez, frantsesez, etab.
- Etxera eramango dizugu!
- Leintzibar, 2 • ARRASATE
Tel: 79 47 54
E-mail: melices@arrakis.es

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE




PEUGEOT

Salmenta eta
zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE



Euskal Herrian okela ona dugu

EUSKO LABEL



KALITATEA



EUROPAKO ELKARTEAREN
PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUTAKO KANPAINA

Kalitateko Euskal Labelarekin identifikaturik eta ziurtaturik iristen zaio okela kontsumatzaileari

KALITATEKO EUSKO LABELA DUEN ABELGORRI OKELA

Kalitateko Eusko Labela duen Abeltzari Okela Baimendutako Harategietan bakarrik saltzen da

ARRASATE-MONDRAGÓN

► **LANDALUZE HARATEGIA**
ITURRIOZ KALEA, 7

► **M. AZPILICUETA HARATEGIA**
DOCTOR IBAÑEZ, 10

-**ESPARZA HARATEGIA**
AVENIDA ALAVA, 14

-**JOSÉ MARI SALEGI HARATEGIA**
OLARTE, 20

-**ELORZA HARATEGIA**
JUAN BENGUA, 1

-**J. RAMÓN OTAMENDI HARATEGIA**
FERRERÍAS, 20

ESKORIAZA

-**CARNICERÍA ZUBIA**
SANTA ANA, 11

● Labeldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur gorri batez (►) adierazitako Harategi Baimenduak ARTISAU ERAKO HARATEGI ESPEZIALIZATUEN sailkapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan

Artea eta elkartasuna


Azoka ostiralean zabaldu eta dagoeneko artelanen erdia saldu da

Eguberriotan, oparitu artea eta elkartasuna" dio Harreman hirugarren mundu taldeak zabaldu duen azoka bereziaren leloak. Gabonak opariak egiteko garaia izan ohi direla aprobetxatuta, herriko hainbat artistei kolaborazioa eskatu eta eurek emandako artelanak salgai jarri dituzte Seber Altube plazako lokaletan.


60 bat koadro eta buztinezko pieza inguru bildu dira ostiralean zabaldu zen azokan, eta lehenbiziko asteburu luzean artelanen erdia saldu da. Hori bai, denak salduta ere, artelanak ikusgai izango dira errege bezperan azoka itxi arte. Poltsiko guztien neurri-egindako lanak daude, 5.000 pezetan merkeenak eta 75.000 pezetan garestienak. Gehienak, 5.000-10.000 bitartekoak. Artea izateko, eta bidezko helburu bat tartean, modu oneko prezioak.

Salmentatik ateratzen den dirua, San Klemente izeneko proiektua aurrera ateratzeko izango da. San Klemente izeneko eskola Kolonbiako Guática lurraldean dago, Andeatoko mendebaldean, 2.100 metroko altueran. Arrasateko Harreman eta Aretxabaletako Hiruatx taldeendako herria azpigarapenetik ateratzea da helburua. Horretarako, aitzurraren teknologia gainditu eta nekazal garapenerako azpiegitura sortzen lagundu nahi dute.

Proiektuaren aurrekontua 22 milioi pezetakoa da eta azken 24 urteetan bertan bizi den Sebastian Uribetxebarria atxabaltarrak zuzenduko du.



Leintz zeramika eskolako kideek emandako lanetako batzuk.



Azokaren lehen hiru egunetan koadroen erdia saldu dira .

Artistak

Euren lanak proiektu honetarako eman dituzten artista eta talde arrasatearrak hauek dira:

- Arantza Baskaran
- Santi Altuna
- Iñigo Arregi
- Mertxe Arana
- Conchita Zarraoa
- Arantza Juaristi
- Eluska Zabalo
- Iñaki Riviere
- Valentín Arana
- Fernando Ipiña
- Julio Galarta
- J.L. Goikolea
- Kepa Altube
- Kepa Landaluze
- E. Dolara.
- Leintz zeramika eskola
- Arrasate Margo Taldea
- E.G. Zentroko pintura taldea.

K. H. (KOMANDO HARRIKARA), ROCK TALDEA

“Beti izan gara Garagartzako bihurriak”

Joan den larunbatean egin zuen debuta Garagartzako rock talde berriak Arrasateko gaztetxean. Lehen uneko urduritasunak pasata, espero zutena baino hobeto joan zitzaizen emanaldia. Lehendabiziko esperientziatik atera duten ondorioetako bat, berriz, hauxe da: **montatu, probatu, afaldu, jo eta desmontatzea astuna egiten dela benetan.**

- Zer moduz lehenbiziko kontzertua?

Hasieran urduri geunden eta soinuarekin ere arazoak izan genituen. Lokaleko soinura gaude ohituta eta hura ezberdina zen. Teknikariari ere kosta egin zitzaion guk nahi genuena ulertzea, baina azkenean oso ondo atera zen.

- Kontatu zelan jaio zen taldea.

Orain dela bi urte eta erdi hasi ginen. Iker kitarra jotzen hasi eta laster hiru lagun elkartu ginen taldea eratzeko asmoarekin. Instrumentoak jotzen ikasi eta kantuak egiten hasi ginen, ondo pasatzeko asmoarekin. Ez genuen espero zuzenean hain goiz jotzea. Gaur egun bost gara taldean, hiru garagartzar eta bi arrasatear eta Garagartzako auzo etxean egiten ditugu entseiuak.

- Auzokoak ez dira kexu?

Burrundara igertzen da eta horregatik muga jartzen diegu entseiu orduei. Santamasetan edo, txosna jarri nahi genuke lokala insonorizatzeko diru apur bat lortzeko. Erdi txantxetan auzotarrek haserre egiten digute baina ez daukagu bestelako arazorik. Gainera beti izan gara auzoko bihurriak. Orain zintzoago ibiltzen gara.

- Zenbat kantu dituzue?



- Geuk egindakoak zazpi. Zapatuko kontzertuan hamaika jo genituen, *Negu Gorriak*, *Kortatu*, *RIP*, *Vómito* eta *Eskorbutoren* bertsiok barne.

- Kantuen bertsiokak egiteko orduan ohikoagoa da atzerriko taldeetara jotzea.

- Gustoko dugun musika atzerrikoa da baina hitzak ulertzen ditugula-eta, bertako taldeen kanta errazagoak egiten zaizkigu guri eta baita publikoari ere.

- Ze iturritik edaten duzue?

- Gusto ezberdinak ditugu baina punk, hardcore eta heavy musika ditugu gogokoen.

- Debutaren ostean, zer asmo aurrera begira?

- Entsaiazen jarraitu, abesti berriak egin, eta kontzerturen baterako deitzen badigute, aprobetxatu. Beharbada Gesalibarko jaietan joko dugu. Bestalde, aukera izanez gero zerbait grabatu nahi genuke, baina guretzako, argitaratzeko ez.

“Ez genuen espero zuzenean hain laster jotzea; gure ustez goiz da oraindik”

Arrasate 97 lehiaketek badituzte finalistak

Hemen dituzue AEDK antolatzen dituen lehiaketetan finalista geratu diren izenak. Sariak datorren ostiralean banatuko dira, Monterronen, arratsaldeko 7etan.

Ipuinetan 201 lan aurkeztu dira eta 12 urtekoetan Itziar Urri, Miren Lizaranzu eta Aiora Padilla geratu dira finalista. 13 urtekoetan Jone Lopez eta Jokin Lardizabal. 14 urtekoetan Ainhoa Garai eta Arantzazu Viteri. 15etik 16 urte bitartekoetan Asier Albistur. Bukatzeko, helduen mailan Juan Luis Lopez eta Marian Porcel.

Poesian 35 lan aurkeztu eta 14 urte artekoetan Leire Zabala eta Ainhoa Garai geratu dira finalista, 15etik 16ra Manex Agirre, Nerea Makazaga eta Patricia Mora-Gil. 17 urtetik aurrera Ainhoa Gutierrez, Monika Estevez, Edurne Martinez eta Karnele Umezez.


Bestalde, 21 bertso paper eraman dira AEDra. 14 urte arte Ainhoa Garai da finalista, 15etik 16ra Ane Zabala eta 17tik aurrera Danel Goikolea, Saioa Arando eta Edurne Unzueta.

Komikiei dagokienez, 53 lan aurkeztu eta 14 urte arte hauek geratu dira finalista: Hodei Arregi, Iñaki Viteri, Ekaitz Arruti eta Mario de la Torre. 15etik 16ra Eluska Zabalo eta 17tik aurrera Mikel Arroiabé.

Eskualdeko euskara jasotzen duten 17 grabaketa jaso eta Mirian Txintxurreta eta Eneritz Garro dira finalistak.

Antzerki lehiaketan, ostera, Itziar Larrañaga, Nerea Zenigaonandia, Agurtzane Urteaga eta Leire Ayani heldu dira azken txanpara eta guztira 5 lan egin dira.

Azkenik ikusentzunezkoen gidoigintzan bost jaso dute eta Diego Martiartu da finalista.



ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Bergaran apartamentua salgai. 40 m². Sukaldea, komuna, egongela... 6.500.000 pta. Negoziagarria. Tel.: 76 05 88.

• Olaran kalean jantzitako pisua salgai. Tel.: 79 94 24. Gaueko 9etatik aurrera.

• Donostiako Amara auzoan pisua salgai. Eraikuntza berria, eguzki begian eta lasaia. 75 m². 19.000.000. pta. Tel.: 45 85 09. Goizean 9etatik 11etara eta Arratsaldean 19etatik 21era.

3. Errentan emateko

• Arrasaten pisua alokatzen da. Nahi izanez gero logelak ere alokatzen dira. Tel.: 76 21 76. Arratsaldeko 8etatik aurrera.

4. Errentan hartzeko

• Apartamentua edo pisu txikia behar dugu alokairuan. Tel.: 989 14 73 05. Mari Luz.

• Bikote gazte batek pisua behar du alokairuan. Tel.: 907 94 06 67.

5. Etxe konpartituak

• Logela bat alokatzen da Arrasateko erdialdean. Tel.: 79 87 59. Tere.

• Donostian pisua osatzeko lagun bar behar dugu. Etxea erdi aldean dago. Tel.: 85 16 64.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko etxeetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

• Kontzeziñon garajea salgai. Tel.: 79 23 38.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100m² eta bi solairuko lokala sal-

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

gai. Tel.: 79 07 24.

14. Errentan emateko

• Antzuolan taberna traspasatu egiten da. Tel.: 76 01 95 eta 78 70 32.

• Etxabea alokatzen da bulego, kontsulta eta abarjartzeko egokitua. Tel.: 79 18 95.

15. Errentan hartzeko

• Arrasaten lokal komertziala edo industrialia hartuko nuke alokairuan. Tel.: 79 99 82.

• Gazte batzuk lokal baten bila dabil-tza. Tel.: 79 56 14. Igor.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska orduka lan egiteko gertu. Tel.: 79 77 91.

• Esperientziadun neska gertu umeak edo pertsona nagusiak eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 31 44. Miriam. Gauz.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 79 51 29.

• Andra euskalduna umeak edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Arratsaldean etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko emakumea gertu. Tel.: 79 45 16. Bego.

• Neska gertu kamarero lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 77 16 32.

• Titulodun neska gertu administratzaile lanetarako. Tel.: 907 94 06 67.

• Esperientziadun andra euskalduna etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 77 04 60. Margari.

• Geriatrian diplomadun mutil gaztea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 11 urteko esperientzia. Tel.: 79 61 05.

• 35 urteko emakumea gertu sukaldean laguntzeko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 05 53.

• Etxeetara arropak plantxatzera joateko gertu nago. Tel.: 79 05 53.

18. Eskaerak

• Sukaldari laguntzailea behar da. Tel.: 79 20 26.

• Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 09 03.

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. 77 04 70. Gauz deitu.

• Jatetxe eta barrarako kamareroa behar dugu. Tel.: 79 11 25.

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko neska euskalduna behar da. Tel.: 79 76 56.

• Pertsona euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 03 82.

• Hiru seme-alaba dituen Arrasateko familia batek neska euskalduna behar du. Tel.: 907 25 84 04.

• Esperientziadun neska behar da denda batean lan egiteko. Tel.: 77 06 82.

19. Denetarik

• Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Injinerutzako ikasle batek fisika eta matematika klase partikularrak emango lituzke. BUP eta UBI mailak. Tel.: 79 71 16. Goizez eta gauz.

• Alemanierako eta portugalerako klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko ordu 1etik aurrera.

• Titulodun neska batek DBHko 3. mailako klase partikularrak emango lituzke gazteleraz. Tel.: 79 79 84. Arratsaldeko 3etatik aurrera.

• OHoko klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 98 68.

• Esperientziadun neska OHoko klase partikularrak emango lituzke euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 25 09.

• Alemaniera ikasten hasi nahi baduzu, klase partikularrak emateko prest nago. Tel.: 79 82 42. Ainhitze.

21. Eskaerak

• LOGSEko 1. mailako ikasle batek

matematika, fisika eta kimikako klase partikularrak hartuko lituzke. Tel.: 79 70 36 edo 79 12 91.

• Injinerutzako lehen mailako ikasleak marrazketako klase partikularrak hartu nahi ditu arratsaldeko 7etatik aurrera. Tel.: 79 73 04.

MOTORRA

23. Saldu

• GAC Kanowey motorra salgai. Egoera onean. Tel.: 71 44 45. Gaueko 10etatik aurrera.

• Ford Fiesta Sport Mango 1.4, SS-AP autoa salgai. 36.000 km. Berri-berria. Tel.: 79 66 58. Gauez.

DENETARIK

26. Saldu

• Conserban Roller karabana salgai. 4-5 lagunendako. Oso egoera onean dago. Tel.: 79 59 71.

• Yorkshire arrazako txakur kumeak salgai. Tel.: 77 04 84. Gauez.

• Boxer txakur kumeak salgai. Tel.: 79 92 79. Arratsaldeko 8etatik aurrera.

• Oilagorretan trebea den setter baten txakur kumeak salgai. Tel.: 81 22 06.

• Egoera onean dagoen logela bat eta komuneko altzariak salgai. Tel.: 79 54 07.

• Lur enziklopedia salgai. 10 tomo. 30.000 pta. Tel.: (945) 24 70 31.

• Tosai markako kerosenozko bero-gailua salgai. Tel.: 79 82 36 7 79 78 65. Gauez.

• Ileapaindegirako tresneria salgai. 200.000 pta. Tel.: 79 67 12.

• Karabanendako neguko abantzea salgai. Inca Alpes 250 modelo. Bi urte ditu. Tel.: 79 66 09.

• Bigarren eskuko erremolkea salgai. Tel.: 79 86 75. Denda orduetan.

• Meto markako barazki eta haragia pisatzeko tresna salgai. Tel.: 79 08 97.

27. Erosi

• Lau pistadun grabagailua erosiko nuke. Tel.: 79 41 97. Koldo.

• Bigarren eskuko pianoa erosiko nuke. Tel.: 939 65 34 85. Maribel.

• Single diskoak erosiko nituzke. Tel.: 52 65 77.

30. Hartu

• Zure hozkailu zaharra bota behar baduzu gu pasatuko gara jasotzen. Tel.: 79 65 31. Maite.

• Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldea eta hozkailu bat behar du. Tel.: 79 37 68.

31. Galdu

• Azaroaren 20an kiroleko erropaz beteriko ume motxila bat galdu zen Arimazuri plaza iguruan. Tel.: 79 78 97. Gaueko 8.30etatik aurrera.

• Paper garrantzitsu batzuk zituen karpeta beltz bat galdu nuen azaroaren 28an San Andres eta BM inguruan. Tel.: 970 41 74 08.

32. Aurkitu

• Peugeot auto bateko giltzak aurkitu nituen igandean Munarreko Nebraska tabernaren parean. Udaltzaingoa daude.

• Monterronen txandal fraka berri batzuk aurkitu nituen orain dela bi aste. Think Pink markakoak dira. Tel.: 79

40 15.

• Joan den igandean Leintz Gatzagako ferian emakumezkoendako antioju graduatu batzuk aurkitu nituen. Leintz Gatzagako Udaletxean daude.

• Lasagabaster jantxidendan betaurrekoak eta giltzak utzi ditueana pasadadila bertatik jasotzera.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Euskal heavy-rock talde bat osatzeko baxularia behar dugu. Tel.: (945) 13 67 03. Jokin.

• Arrasateko rock talde batek bateriojolea behar du. Punk/Oil! estiloa. Tel.: 79 79 35. Asier.

• 26 urteko mutil homosexuala naiz eta lagun taldea osatu nahiko nuke. Animatu eta Arrasateko 59 postakutxara idatzi.

36. Deialdiak

• Udalako Arteta baserrikoek kontu korrontea zabaldu dugu sutean ondutako baserria konpontzeko. Euskadiko Kutxa: 0010045181.

LORAMENDI INTERSPORT®

Hotzari aurre egiteko...

- Forro polarrak
- Goretex-ak
- Txamarrak
- Botak...

eta ski ekipoaik
21.900 pta.tik hasita.

Etorri katalogo berria jasotzera

■ Horoskopoa

- **Aries** Aste honetan uste baino lan gehiago izango duzu.
- **Taurus** Ez duzu piperrik ere ikusten. Graduatu berriro betaurrekoak.
- **Gemini** Loteria ez baina supermerkatuko bonoekin turroia irabaziko duzu.
- **Cancer** Hortz horiekin Transilvaniako drakula dirudizu.
- **Leo** Etxean jarri duzun gabonetako zuhaitza negargarria da.
- **Virgo** Durangoko azokan baino galduago ibiliko zara aste honetan.
- **Libra** Aho ondoan duzun pekatxo hori oso sexia da.
- **Scorpio** Kontuz aire korronteeekin eta zabalik dauden ateeekin.
- **Sagittarius** Saturnoren eratzuna baino handiagoa da zure bihotza.
- **Capricorn** Esan Ozenkidela disketxerik onena? Gor xamar zaudetenok esango duzue...
- **Aquarius** Zaindu maite dituzunak, zure ondotik aldegin ez dezaten.
- **Piscis** Lan astun hori bukatutakoan lasai geratuko zara.

■ Gurutzegrama

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10						
11				12		
13			14			15
16			17		18	
		19				

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1.T.U.-Lankide aldizkaria zuzentzen duenaren abizena. 8. Ibaiko ura doan tokia. 10. Nekagaitz. 11. Modu. 12. Egun jakina. 13. Errabino. 15. Iridioa. 16. Artsenikoa. 17. Oiloak lo egiteko haga multzoa. 19. Arabako udalerrria, Nerbioi ertzean.

Bertikalak 1.Materia biziduna ez dena. 2. Aberastu aditzaren infinitiboa. 3. (Ald.) Antzekorik edo lagunik ez duena. 4. Central Intelligence Agency. 5. Agintzen duenaren esana egin. 6. (Ald.) Alegiazko artzain siziliarra, Galatearen maitalea. 7. Erromatarren zilarrezko moneta. 9. Titi, ugatz. 14. Suge handi eta luzea, pozoigabea dena. 18. Latinezko lokuzioetan erabiltzen da.

Horizontalak: 1. Marcos. 8. Ibaibide. 10. Nekazim. 11. Era. 12. Data. 13. Rabi. 15. Ir. 16. As. 17. Ota. 19. Laudio.

Bertikalak: 1. Mineral. 2. Aberas. 3. (Ald.) Bakar. 4. CIA. 5. Obeditu. 6. (Ald.) Azis. 7. Denario. 9. Diti. 14. Boa. 18. Ad.



**ABENDUAREN
21 eta 22an
Maiatzaren 1.aren
Plazan (San Andres
auzoa). Zatoz!**



Aurtengoa bigarren aldia izango da ALDIBI AUTOAkek 4x4 proba antolatuko duena, 1997ko Santamas jaietan. Ekitaldiaz gozatzeaz gainera, jaizale guztiok TERRANO II aparta ikusi ahal izango duzue. **Ondo ibili jaietan!**

Zigorrola, 1
1. pabiloia
ARRASATE
Tel.: 71 20 02



Ekonen "Zurrunbilo kaotikoa" ATBn

Arrasateko taldearen lehen diskoa *Burua astinduz* saioan

Ekon talde arrasatearraren *Zurrunbilo kaotikoa* diskoa Euskal Liburu eta Diskaren Azokarako salgai egotea espero zuten, baina inprentako arazoak medio ezin izan zuten Durangon aurkezpen ofiziala egin.

Arazaok arazo, Ekonen lehen diskoa egun batetik bestera izango da kalean eta taldea gaur bertan hasiko da diskoa ezagutzera emateko kon-

tzertuekin, Hemanin. Momentuz ez dute Arrasaten berehala jo nahi, herriko jarraitzaileei ikuskizun ona eskaini ahal izateko aurretik kanpoan landu nahi dituzte eta zuzeneko emanaldiak. Abendu eta urtarileko asteburu guztiak beteta dituzte; gugandik gertuen Bergarako Jam aretoan izango ditugu, urtarilaren 30ean, Etsaiak taldearekin batera.

Diskoaren eta grabaketa-

ren nondik norakoak kontatzeko, Ekon taldeko partaideak *Burua astinduz* saioan izango dira datorren martitzenean.

Zuzeneko emanaldien atalean, berriz, hilaren bostean Agnostic Front hardcore talde brooklindarrak Jam aretoan eskainitako kontzertuaren hainbat zati ikusi eta entzun ahal izango ditugu martitzeneko programan.

Arrasate Irratia 107.7 FM

ZAPATUA

9:00 **Albistegia**
9:30 **Musika**
10:00-11:00 **Jailarai** haurrentako programa. Maider Errate eta Belen Aranbarrarekin.
11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika klasikoak, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaiola eta Eusebio Iñarrarekin.
12:00-14:00 **Bi zoro eta zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA GOIZ-EGUERDIZ

9:00 **Albistegia**
9:30-11:00 **Goizoro**
14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

Astelehena

21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kiroiak, Gorka Etxabe eta Rafa Mungiarekin.

Asteartea

22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Arana, Maider Errate eta Garbiñe Perezekin.

Asteazkena

22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasleek eginiko magazina.

Osteguna

22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Carenas eta Kaïttin Allenderekin.

Ostirala

22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasolo eta Pedro Costarekin.

23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika, Daisy D. eta Betty Boorekin.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 13	ASTELEHENA, 15	ASTEARTEA, 16	ASTEAZKENA, 17	OSTEGUNA, 18	OSTIRALA, 19
Asteazkenean eskainitako programa interesgarrien errepikapena	13:30 Astebete . (Errepik.)	13:30 Mondrasport . (Errepik.)	13:30 Burua astinduz . (Errepik.)	13:30 Munduari bueltaka . (Errepik.)	13:30 Kukaratxa Motel (Errepik.)
13:30 Kukaratxa Motel	20:00/20:30/21:00 Berriak .	20:00/20:30/21:00 Berriak .	20:00/20:30/21:00 Berriak .	19:15 Kukaratxa Motel . <i>Unai Iparagirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin</i> . Gaztetxoendako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 Berriak .
14:15 Astebete	21:30 Mondrasport . <i>Itxaro Zubillaga</i> . Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak, ... eta lehiaketa astelehenero.	21:30 Burua astinduz . Gonbidatuak: <i>Ekon eta Agnostic Front</i> .	21:30 Munduari bueltaka . <i>Maria Agirre</i> . Bittor Iñarra eta Ikerne Altubek Nepalera egindako bidaiaren berri emango dute.	20:00/20:30/21:00 Berriak .	21:30 Astebete . <i>Paxi Montero</i> . Asteazkenean zehar jasotako berrien errepaso.
14:45 Lotsa barik . Gonbidatua: Iñaki Urdanpilleta.				21:30 Kukaratxa Motel .	



Argazkiko futbol taldeak Txapela izena zuen; ez dakiguna da ea sekula txapeldu izan ziren. Lagun arteko partaiduak jokatzen zituzten Txapela talde-

koek, gaur egun Zaldibarren jokatzen direnen antzekoak. Zerrajerako futbol zelaian jokatzen zuten, Zaldispen zegoen zelaian.

Argazkia 1948. urte ingurukoa da. Zutik ageri direnak: Egiluz, Joxe Zeziaga Ponpo-

nio, Joseba Bengoa, Joxe Mari Arzuaga, Iñaki Mujika, Angel Guridi, Pedro Ortuozte eta Luis Mari Aranburu.

Makurtuta: Angel Zubia Cestero, Emilio Lizarralde, Carlos Beitia, Jesus Marco Zakuto eta Jon Bengoa.

Informazioa eta argazkia:
Felix Lizarralde

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

TXOKO TABERNA

Eure berezitasunak pintxo eta
mokau gozoak

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE



PEÑAKOBA

Zarugalde, 46
Tel.Faxa: 79 29 93
ARRASATE

Lizaur arkitektoa, 7
Tel.: 78 05 60
OÑATI



UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00
Fax: 793412

TXOTXONGILO EMANALDIA PINOTXO 2000



Abenduak 13, zapatua

Arratsaldeko 17.00etan


Sarrera: 300 pta.



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Estetika Zentroa

GABONETAN OPARITU EGIOZU EDERTASUNA

Olentzero eta Errege egunean zer oparituko diozun ez dakizula?

Harritu egizu ilusioa
egingo dion eta espero ez duen
erregalurekin!

Zatoz eta galdetu
konpromezu barik!

Erdiko kale, 54 etxabea
ARRASATE • Tel: 79 09 09

Bihotzak
gida zaitzala.



berria
Opel
Corsa

zure bizitzako motorea

Zure bizitzako motorea martxan jarri da.
Motore belaualdi berri bat. Potentzia gehiagoz. Kontsumo gutxiagoz.
Eta txasis berri bat. Gehiago gozatzeko. Segurtasun handiagoz.
Jarriozu motore berri bat zure bizitzari, eta eraman zaitzala

OPEL
ALEMANIAR INJENERUTZA ZUTZA

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea, 3.(Escatu pabilioia). Tel.: 79 05 86

OPEL KONTSEZIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.